

Ataria > Ikas Xiberoa > Erakasleak > Beste materiala > Ihauteriak > *Maskaradak, azalpenak*

MASKARADAK, AZALPENAK



Azalpenak

Züberoko Maskarada

Zure herriak bezala, Züberoak ere baditu bere lhauteriak eta MASKARADArekin ospatzen dira. Urtero, herri ezberdin batek antolatzen du antzerki mota berezi hau eta herri herri joaten da.



Emanaldi honetan badira bi talde: **GORRIAK**: Jaun eta Anderea, laborari-laborarisa, dantzariak (Txerreroa, Gatüzaina, Kantinierra, Zamaizaina eta Enseñaria) eta Kükülleroak.

BELTZAK: Xorrotxak (Auvergne-tik), Kerestuak (Biarnetik), Buhameak eta Kauterak (Kabana nagusia, Pupu eta Pitxu).



GORRIAK Züberotarrak dira, zintzoak, dantzari onak eta jantzi ederrak dituzte.



BELTZAK kanpotarrak dira, basatiak, gaixtoak, zikinak, gezurtiak, ardozaleak, kalakariak (berriitsuak), bortitzak eta gaizki jantziak.

6

Pankarta1



Goizean, herrian sartzeko, barrikadaren gainetik pasatzen dira. Hor, dantza egiten dute eta arnoa edaten. Arratsaldea dantza eta kopletan pasatzen dute.



Gero, XORROTXEK Jaunaren ezpata zorrotz behar dute. Honetan ere, liskarrak sortzen dira.



Hauen artean badira ekintza batzuk: lehenik, KERESTUEK zaldi maingua ferratu behar dute. Mutilak ez du lan egin nahi, eta Pitxurekin iskanbila sortzen da.



BUHAMEEK sabre dantza egiten dute eta bálentriak kontatzen. Manamendu berriak sortzen dituzte, denak legez kanpokoak.

7

Pankarta2



Dantza oinitz da maskaradan, eta horien artean dugu "Godalel Dantza". Hori da ikusgarriarena. Aintzindari bakoitzak dantza egiten du edalontzi baten inguruan eta bukatzen salto batekin, bi oinak basoaren gainean pausatuz!

KAUTERЕК Jaunaren pertza konpontzen dute. Jaunak dirua botatzen dienean, borroka erdian, Beltzek Pitxu lehertzen eta hiltzen dute.



Bukieran, **BEDEZIAK** (medikuak) Pitxu "operatzen" du : tripa ateratzen dizkio eta botatzen publikoari. Horren ondorioz, Pitxu berpizten da, dantza egiteko aktore eta ikusle guztiekin!



8

Pankarta3

Azken eranskinak : 2016-ko irailaren 20a

IKAS XIBEROA

Baliabideak

Animazioneak

Erakasleak

IKASen albumen ustiapenak

Euskara

Beste albumen ustiapenak

Beste materiala

Lotürak



📍 Lapurdiko Bizkondeen karrika, 81, 64480 Uztaritze

☎ +33 (0)5 59 93 24 80

Harremanak
Legezko aipamenak
Gunearen mapa
Partaideak
Harpidetu